

Gogoeta-leku dantzagarriagoak, gomuta-leku bizigarriagoak

Ibai Atutxa Ordeñana
Critical Theory Bilbo-Barcelona
Iratxe Retolaza Gutierrez
Emagin

ETA armatu zenetik desarmatu zen arteko garaia eta oraindik bukatu gabeko estatuen indarkeriaren aldia jorratzen ditu esku artean duzun liburuak hainbat ataletan zehar. Kapitulu bakoitzak XX. mendeko bigarren erdian hasi eta XXI. mendeko lehenengo hamarkadan zehar iraun zuen gatazka armatu horri erreparatzen dio, helduleku ezberdinetatik bada ere. Diziplinen arteko elkarrizketari ere bidea egiten dio: lehen bi atalek soziologiatik heldu diote gaiari, eta gainerako atalek, aldiz, euskal literatur testuen azterketak izan dituzte ardatz nagusi. Hori bai, ikerlan horiek guztiek egiten dute gatazka armatuaren irakurketa feminista.

Irakurketa feministek biderkatu egiten dituzte gatazka armatuari buruzko galderak, eta horiek dira gatazkaren ikuspegia zabaltzera eraman gaituztenak. Zer adiera eman diogun gatazkari; aldi berean zenbat gatazka bizi izan ditugun gurean; nola gurutzatzen den gatazka armatua beste gatazkekin; zer gatazka kokatu den erdigunean eta zeintzuk, berriz, bazterrean; zer genero-logika eraiki diren gatazka armatua fikzionalizatu duten literatur testuetan; eta beste hainbeste itaun. Horrenbestez, ikuspegi kritiko feministak aukera eman die autoreei gatazka armatuari buruz orain arte jorratu gabeko auziei heltzeko eta egindako galderei ezberdin erantzuteko. Finean, gogoeta-leku berriak sortzen ditu liburuak. Horixe da kapituluetan zehar aurkituko duzuna.

Gogoeta-lekuak ugaritzeko bultzadari tira egin eta izenburua bera erabili dugu hausnarketa sustatzeko. *Indarkeriak dantzatzera behartzen gaituzte* adierak Amaia Lasaren «Nik dakit» poemarekin¹ elkarrizketatzen du. Atalen goiburuek ere

1. Hona hemen Lasaren poema, osorik: «Nik dakit / koloreak zapalduak izan direla. / Badakit / nola izan diren estaliak, / oria / zuria / urdina / gorria / ubela. / Itsasoa dugunak / itsasoen murgildu garenok, / jakin dugu / zapalketa horren berri. / Bitartean, / historia dantzatzen ari gara / edo historiak dantza dantzatzera / behartzen gaitu. // Nik dakit, / koloreak estaliak izan direla. / Ubela ez dela gehiago ubel. / Oria ez dela gehiago ori. / Zuria ez dela gehiago zuri. / Urdin iluna, argia eta bizia / ez direla gehiago, urdin. / Aldatzen gaituzte / esanaz, / ez dugula / maitasunaren kolorea behar, / egunaren kolorea behar, / lur bustiaren kolorea behar. / Historia dantzatzen ari gara / historia dantzatzera / behartzen gaitue. /

elkarrizketa horren oihartzuna hartu dute. Poeman modu sinbolikoan irudikatzen da zapalkuntza anizkoitzaren ideia, eta zapalkuntza horiek geure gorputz zein nortasunetan duten eragina:

Nik dakit / koloreak zapalduak izan direla./ Badakit / nola izan diren estaliak, [...] Itsasoa dugunak / itsasoan murgildu garenok, / jakin dugu / zapalketa horren berri. / Bitartean, / historia dantzatzen ari gara / edo historiak dantza dantzazera / behartzen gaitu. // Nik dakit, / koloreak estaliak izan direla. [...] Aldatzen gaituzte / esanaz, / ez dugula / maitasunaren kolorea behar, / [...] Historia dantzatzen ari gara / historia dantzazera / behartzen gaitue (1977: egun online).

Lasaren «historia dantzazera / behartzen gaitue» bertso-lerroetako «historia» indarkeriekin lotu dugu guk. Hainbestekoa da zapalkuntzen indarkerien astindua, ezen modu jakinetan dantzazera behartzen gaituen. Modu jakinetan eragiten dute indarkeriok geure gorputz-dinamikak eta pentsamendu-dinamikak erregulatzeraino. Dantza behartu hori izendatzea bera da gogoeta-leku berriak sortzeko urrats ezinbestekoa («Nik dakit»). Dantzaleku zaharrak arrakalatzeko ahalmena dakar izendatzeak, eta dantzaleku berriak sortzeko agentzia irudikatzea. Dantza behartu horietariko batzuk ere izendatu nahi izan ditugu bilduma honetan, urratsez urrats dantzaleku feministagoak eraiki ahal izateko.

Euskal literaturak ematen du gatazkari dantzaleku feministagoetatik heltzeko. Izan ere, jadanik 1960ko hamarkadatik aurrera, genero literario ugaritan sortu da gatazka armatuari buruzko literatura. Askotariko ikuspegiak, lekuak eta begiradak jorratu dituzte batzuek modu zuzenagoan, beste batzuek zeharka. Literatur sorkuntzaren luze-zabalari begiraturaz gero, beraz, ugaritasuna da nagusi, nahiz eta oraindik jorratu gabeko hainbat estetika eta ikuspegi egon.

Ugaritasun hori, ordea, ez da sumatzen Literatur Kritikaren esparruan, batez ere kritika akademikoaren ekarpenei begiraturaz gero. Literatur Kritikaren diskurtsoetan ikuspegi literario-politiko bakarra nagusitu da, nahiz eta kritikagintzan ari garen eragileon artean askotariko kokapenak, begiradak, balioak eta bizipenak izan ditugun kideak egon; nahiz eta belaunaldi ezberdinetako kideak egon (testuinguru soziopolitiko oso ezberdinak bizi izan ditugunak); eta nahiz eta Euskal Herriko herri batetik bestera gatazka armatuaren indarkeriak, zurrunbiloak, oihartzunak eta bizipenak oso desberdinak izan. Beste kokapen literario eta ideologiko bat dugunok ez dugu dinamika nagusi horiek birpentsatzeko nahikoa urrats diskurtsiborik egin; ez dugu galdera berriak sortzeko nahikoa gaitasunik izan. Hain zuzen ere, hutsune hori betetzera dator bilduma.

Biharamunean / kolore hitsa / gure koloreen hitza / izanen da. // Hala, / gu ere / haitzaren antzo / aldatuz goaz / Emeki, emeki, / kolore guztiak / gure arima den / zoko zulatuan / gorderik» (Amaia Lasa, *Hitz nahastuak*, 1977).

GURE GATAZKEZ ETA GURE KRITIKEZ

Gero eta gehiago, testu dibulгатiboagoek eta baita akademikoagoek ere elkarbizitzaren zerbitzura jarri dute euskal literaturaren kritika. Elkarbizitza lortzeko funtzioa narratologiari egotzi zaio batzuetan, besteetan literaturari berari esleitu zaio. Hasier Arraizen 2019ko *Maitasun keinu bat besterik ez* liburuan, adibidez, irakur daiteke, «lan handia egiteko badago ere narratologiaren ikuspegitik bakea eta elkarbizitza demokratikoa eraikitzeke [...] ez gaude duela urte batzuetako egoeran» (253). Antzera, Mari Jose Olaziregiren 2017ko «Literatura vasca y conflicto político» artikulua esaten du: «Las líneas temáticas son abundantes [...], pero destaca, obviamente, una necesidad [...] de contribuir [...] a la resolución del conflicto y la convivencia» (17). Olaziregiren beraren 2019ko «Narrativa Vasca y memoria histórica: recordar para convivir» artikulua bide berorri ekiten dio ikertzeko «obras que, en nuestra opinión, han recordado [...] con la intención de contribuir a una memoria cultural que [...] contribuya a la convivencia» (343). Liburu honek urratzen duen ibilbide kritikoa beste bat da.

Bilduma honek teoria kritikoaren eta ezker globalaren elkarriketen muinean kokatzen ditu euskal gatazkak. Elkarbizitza baleko helburua da, noski, are laugarria ere, batez ere politikarientzat, alderdientzat eta eragile ezberdientzat. Ostera, liburu honek gutxienez susmoaren filosofoekin hasi zen tradizioan hartzen du parte. Frankfurtoko eskolak, olatu feminista ezberdinek eta arrazaren teoria kritikoek egindako bidea ondo ezagutzen du. Eta gaur egungo teoria kuir, transfeminista, antiarrazista, postkolonial, dekolonial eta klase-zapalkuntzari buruzkoek eraikitako eztabaidagunean buruz buru gurutzatzen dituzte ideiak. Horrenbestez, liburu honek gatazkak berak galdekatzen ditu; gatazketan gelditu egiten da; gatazkei ez die muzin egiten; eta ez die gatazkei zalantzan jarri gabeko irtenbiderik bilatzen.

«Orain arteko gizarte osoaren historia klase arteko borrokaren historia besterik ez da» (1998: 53) idatzi zuten Karl Marxek eta Friedrich Engelsek *Manifestu komunistan*. «Borroka» itzuli zuen Xabier Kintanak Jakin argitaletxeak argitaratutako euskarazko bertsioan. 1888ko ingelesezko itzulpenak, Engelsek berak editatutakoak, honela zioen: «The history of all hitherto existing society is the history of class struggles» (2002: 249). Manifestuak «struggle», «borroka», «gatazka» historiarekin lotzen zuen bezala, guk geuk Amaia Lasaren poemako historia lotu dugu indarkeriarekin.

Gatazka (*la lutte, le conflit*) kulturarekin uztartu zuen Franz Fanonek 1961eko *Les Damnés de la terre* liburuan: «Quels sont les rapports qui existent entre la lutte, le conflit —politique ou armé— et la culture? [...] il n'y a pas mise en hibernation de la culture pendant le combat. La lutte elle-même, dans son déroulement, dans son processus interne développe les différentes directions de la culture et en esquisse de nouvelles» (2002: 233). Joxe Azurmendik (2018: 20) 60ko hamarkadako klandestinitateko brebiario gisa identifikatu zuen liburu hori, eta bertan literatura

gatazkaren barruan irakurtzeko proposamena aurkitzen dugu. Literatura, kultura bezala, ez dago geldirik gatazkan, eta hori erakusten du liburu honek ere. Alderantziz, kultura eta gatazka elkarreaginean eraldatzen direla zioen Fanonek.

«Ondorioztatu nuen nahasmendua saihetsezina dela, eta egin beharreko lana dela pentsatzea nola sortu nahasmendua ondoen, eta zein den norbera nahasmendutan sartzeko modurik onena» (2018: 35) argudiatu zuen Judith Butlerrek 1990ean. 2018an *Genero nahasmendua* izenarekin euskaratutako liburuan «trouble» (1999: xxvii) «nahasmendu» gisa itzuli zuen Ana Isabel Moralesek. «Trouble», beraz, nahasmendua edo gatazka, egin egiteko eta gatazkan egoteko modurik onenaren bila abiatzen zen liburuko sarrera. Gatazka armatuari ikuspegi feministatik begiratzen dion liburu honetan ere, horixe da kapituluek ikertuko dutena. Askotariko gatazkek egiteko eta askotariko gatazketan egoteko moduak mahaigaineratu ditu.

2016an, gatazken egungo erronkez ziharduen Angela Davisek, Katakraken ekimenez urte horretan bertan itzulitako *Askatasuna, etengabeko borroka bat* liburuan. Argi uzten zuen: «Feministek maiz interseksionalitate esaten dioten hori [da] gure erronkarik handiena nazioarteko elkartasuna eta muga nazionalez haraindiko konexioak sendotzeko eginahal honetan. Ez hainbeste identitateen arteko interseksionalitatea, baizik eta borroken arteko interseksionalitatea» (2016a: 183). «Struggle» (2016b: 144) «borroka» itzuli zuten liburuak: berriro ere, gatazka. Gatazken interseksionalitatearen ideia tiraka liburu hau ere saiakera bat da euskal gatazka eta gatazka feminista gurutzaketan pentsatzen jarraitzeko.

Halatan, liburu hau teoria kritikoen eta ezker globalaren tradizioan kokatzeak ez du esan nahi interlokutoreak Euskal Herritik kanpo soilik bilatzen ditugunik. Ezta gutxiago ere. Euskal Herrian bertan jada tradizio horretan txertatu diren eragile eta pentsalariekin elkarriketa kritikoa aritzea dakar kokagune honek. Horregatik, gutxienez 50eko hamarkadatik honako herri-mugimenduak ez dira ikerketa-objektu hutsak, ezagutza sortzen duten subjektu aktiboak baizik. Horren bi adibide besterik ez dira liburu honetan lekua egiten duten ETA eta «Mouvement de libération des femmes» (MLF). Beste tradizio kritikoetan bezalatsu, herri-mugimendu antikapitalista, antiimperialista, komunista, euskaltzale, feminista, transmaribollo, ekologista, intsumiso, okupa eta gainerako eragile eraldatzaileen oinordekotza jasotzen dute hemen mahaigaineratzen ditugun literatur kritikak eta kultur ikasketek.

Struggle, lute, conflict, trouble, indarkeria, nahasmendua, borroka: gatazkek. Oinordekotza ororekin gertatzen den bezala, nahasia da jasotzen duguna, eta ezberdina da oinordekotza horretatik eraberrituta artikulatzen ari garena. Guztiarekin ere, argi daukagu, pentsamendu kritikoa tradizio oso baten parte gara. Gatazkek ikertu egiten dituzte liburu honetara ekarri ditugun literatur kritikak eta kultur ikasketek. Historia gatazka delako, gatazkek eta kulturak elkarri eragiten diotelako, gatazkan egoteko modurik onena bilatu behar delako eta etorkizuneko erronkek gatazken txirikordatzeari irekitzen diotelako bidea, liburu honek gatazka armatua galdekatzen du ikuspegi feministatik.

Bizkitartean, elkarbizitzaren zerbitzura jarri nahi izan da gatazka armatuaz diharduen literatur kritika gurean. Alta, kritikek elkarbizitzaz hitz egiten badute ere, agian oharkabeen, indarkeria-mekanismoak jartzen dituzte martxan. Gutxienez, bi modutan gertatzen da indarkeriazko idazkera hori. Batetik, euskal gatazka bera ukatu egiten du kritikak. Bestetik, *terrorismo* eta *terrorista* kategoriak perbertsio gisa eraiki eta militantzia politikoaren deshumanizazio-prozesuak bultzatzen ditu.

Goian aipatu ditugun Olaziregiren artikulua jarrera horren adibide bi besterik ez dira. Hau da, Literatur Kritikan eta Kultur Ikasketetan hedatutako joeraren erakusgarri dira. Horrenbestez, aukera ematen dute nagusitu egin den ikuspegi literario-politikoaren sostengatzen duten logikez hausnartzeko. Posible egiten dute agerian uztea elkarbizitzaren aldeko diskurtso batzuen atzean dauden gatazkek eta indarkeriak.

Artikuluetakoa batek gatazka bera ukatu egiten du «conflicto vasco» fantasiazko eta asmaziozko narrazio gisa erakusten duenean,

[e]l relato que la izquierda abertzale fue gestando desde el período inicial de la banda [...] una narrativa [...] sobre un legendario enfrentamiento entre vascos y españoles [...] desde tiempos remotos y que únicamente concluiría con la independencia y la implantación de un estado socialista vasco. Esta acepción, [ha sido] ampliamente contestada por expertos [...] o por recientes discursos institucionalizados (2017: 8).

«Experto» horien ihardespren orokortuaren aitzakiarekin testuak ez du gatazka galdekatzen. Ez ditu bereizten gatazkaren existentzia bera eta gatazka hori narratzeko moduak. Ez du kontuan hartzen narrazio batzuek inoiz izan zezaketen izaera estrategikoa. Are gehiago, euskal pentsamendu kritikoan bertan euskal gatazkaren izaeraz hastapenetatik gertatutako eztabaidekin ez du elkarriketatzen. Ikuspegi literario-politiko honentzat, euskal gatazka ez da izango jadanik ihardetsita dagoen fantasia besterik.

Beste artikulua, bi «conflicto armado» izendatzen ditu, «la Guerra de 1936 y el terrorismo de ETA» (2019: 342). Olaziregi ez da ohartzen «gerra» hitzak gatazkan parte hartu zuten alderdi ezberdinez hitz egiteko bidea irekitzen duela, eta «terrorismo»k, berriz, gatazka beharrean, etsaia izendatzen duela. Berrito ere, gatazkaren galdekatzea ukatzen dio testuak irakurleari.

Horrenbestez, nagusitu egin den joera literario-politikoan, gatazka armatuaz nolabait jardun duen euskarazko literatura etsai gisako «terrorismo» eta «terrorista» kategorien inguruan antolatu baino ezin da egin: «Toda novela que trata el terrorismo busca saber [...] cuál es la mente del terrorista, ése ha sido el objetivo de la mayoría de las casi 70 novelas en lengua vasca que han abordado el tema» (2017: 12-13). Gatazka albo batera uzten duen antolakuntza horretan, terrorista etsaia baino aski gehiago da. Terrorista arakatu beharreko buru perbertsoa da: patologizatua. Literatur kritikariak, beraz, psikiatraren lekua hartzen du eta terrorista jartzen du dibanean, sendatu eta normalizatu beharko balu bezala. Ondorioz, terrorista bilakatzen da normaltasuna definitzeko ezinbesteko gorputz desbideratua.

Izan ere, behin deshumanizatuta, patologizatuta eta militantzia politikoaren lorratzak desagerrarazita, *terrorista* kategoriak ezinbesteko eginbeharra betetzen du. Zehazkiago, normaren eta desbideratzearen arteko elkarreragina baldintzatzen du *terrorista* kategoriak. Jasbir Puarren *Terrorist assemblages* liburu klasikoak agerian utzi zuen harreman hori jada 2007an. Puarren lanak argi utzi zuen, gainera, gorputz terroristaren produkzioan berebiziko garrantzia duela genero desbideratuaren eta sexualitatearen perbertsioaren errepresentazioak. Liburu honetako kapitulu batek baino gehiagok ekarri dute gurera analisi hori. Erakusten dute ezinbestekoa dela sexu/genero sistema gurutzatzen duten gatazkez jardutea, gatazka armatua ulertuko badugu. Ikusarazten dute *terrorista* kategoriaren atzean gatazkek eta indarkeriak daudela oraindik pentsatzeko.

Terrorista perbertsoaren kategoriak, beraz, normaltasun jakin bat eraikitzeke balioko du, gurea: «La lógica política que alienta la actual cultura vasca persigue [...] el consenso y la normalidad» (2017: 9). Argudiatzekoa da ea egungo euskal kulturak hain justu kontsentsu eta normaltasun *horiek* bilatzen dituenetz. Zalantzan jartzekoa da, baita ere, dudaezina balitz bezala kontsentsua eta normaltasuna batera jartzen dituen harremana. Galdekatzekoa da *terrorista* perbertsoaren kategoriaren bitartez gatazkaren existentzia bera ukatzen duen normaltasunaren indarkeria. Gaur egun, elkarbizitzaren indarkeriek dantzaten gaituzte.

NOLA HELDU GARA GU HONAINO?: LITERATUR KRITIKAREN JOERAK

Elkarbizitzaren izenean gatazka ukatu egiten duen gatazka armatuaren inguruko literatur kritika akademikoa 80ko hamarkadatik hona joan da diskurtsiboki eraikitzen. Eraikuntza diskurtsibo horren joera nagusietariko batzuk lau hauek dira. Bat, 1980ko hamarkadan sustraitu zen kritika formalista izan da pentsatzeko erabili den begirada nagusia, hain justu, literaturaren autonomia eta «l'art pour l'art» nahasten dituen. Bi, lege antiterroristen itzalak zabaldu ditu kritikak eta 1990eko hamarkadako «Dena da ETA» dotrinaren zentzu komuna betikotu du. Hiru, irakurketa alegoriko eta sinbolikoak hedatu dira eta horrek irakurketa posibleak bira mugatu ditu: ETAREN alde ala kontra ari da testua. Eta lau, ordezkari maskulinoak eta begirada androzentrikoak izan dira helduleku nagusiak, beste ahots narratiboei lekurik egin gabe. Joera bakoitza banan-banan jorratuko dugu jarraian.

1980ko hamarkadako ikuspegia

Gatazka armatua mintzagai duen literaturari buruz aritzean (batik bat nobelaz aritzean) garai eta kokapen baten itzala da nagusi. Garaia 80ko hamarkada da eta hamarraldi horretan zehar erroturiko literaturaren ikuspegia. Kokapenak, berriz, gatazka armatuaren ikuspegi bidegurutzean sendoturiko espazioaz dihardu. Biak ala biak, garaia eta kokapena, begirada androzentriko batetik eraiki ziren (baita klase-ikuspegi jakin batetik eta belaunaldi-ikuspegi jakin batetik ere).

1980ko hamarkadan literaturaren autonomia eta artea artearengatik («l'art pour l'art» edo literatura burgesa) nahasten zituzten literatur kritikek hartu zuten indarra euskal letretan. Sorkuntzari dagokionez, 70eko hamarkadan *Ustela* eta *Pott* bezalako aldizkarietan garaturiko artearen autonomiaren ikuspegia² «l'art pour l'art» gisa berridatzita hedatu zen unibertsitateetan, kritika formalista eta estrukturalista erdigunean zegoen garaian. Hala ere, bestelako literatur ikuspegiak ere indarrean ziren. Besteren artean, bizi-bizirik zeuden literatura engaiatuaren aldeko kritikak. Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegik* ordezkatzan zuen beste ikuspegi hura, eta engaiamendu-premia nazio-zapalkuntzaren auziarekin lotzen zuen (eta ez horrenbeste egiturazko beste zapalkuntza batzuekin, arraza, klasea eta generoa kasu).

Egia da, talkarik handienak eta eztabaida entzutetsuenak literaturaren autonomiaren eta literatura engaiatuaren arteko talka gisa aurkeztu ziren. Hala ere, bi joera horien artean, alboan edo bazterrean izan baziren literaturaren bestelako ikuspegiak jorratu zituzten literaturagileak eta kultur eragileak. Ikuspegi internazionalistagoa zuten batzuek, ikuspegi feministagoa beste batzuek, ikuspegi sozialistagoa zutenak ere bazeuden, eta baita ikuspegi bidegurutzetean kokatzen zirenak ere. Halakoek ez zuten hamarkada hartan babes instituzionalik izan (literaturaren autonomiaren ikuspegia «l'art pour l'art» gisa aurkeztu zenean, aldiz, bai). Halakoek ez zuten mugimendu politiko egituratu eta errotu baten babesik jaso (literatura engaiatuaren ikuspegiak, aldiz, bai).

Indar eta botere kanonizatzaileek literaturaren autonomiaren aldeko idazle batzuen jarduna kanonizatu zuten. Kanonizazio-prozesu horrek unibertsitate-ikasketetan «l'art pour l'art»arekin bat zetozen metodologiak eta ideologiak hedatzea ekarri zuen, baita XXI. mendearen hasieran ere. Ikasketa-jardun horien seme-alaba izan gara gutariko batzuk; halako diskurtsoek blaitu gaituzte. 1980ko hamarkadan abiatutako lehia haren itzala nabaria da sarritan diskurtso literarioetan eta posizio politiko-literarioetan.

Ulertzen dugu garai eta posizio politiko horretako literatur eragileek gorpuzturiko jardunbide hori testuinguru soziokultural eta historiko bati dagokiola. Horregatik, gure jarduna bestelako mundu-ikuskerak eta kultur ikuspegi batzuetan gorpuztu (nahi) dugunoi dagokigu jardunbide horiek uxatu eta irakurketa-esparru berriak eraikitzea, euskal letretako ikuspegi kanonikoa deseraiki ahal izateko. Sor ditzagun geure galderak zein pentsamoldeak garatzeko gogoeta-leku dantzagarriagoak.

Lege antiterroristen itzalak

Literaturaren autonomiaren eta literatura engaiatuaren arteko muturtze hori, batez ere, literaturaren funtzioaren inguruko ika-mika izan zen. Hala ere, eztabaida horren marmarrak adarkatze ugari izan ditu. Adarkatzeok olatuen gisa zabaldu dira

2. 70eko hamarkadan artearen autonomiari buruzko diskurtsoek zuten izaera politikoaz Beñat Sarasolak jardun du argien 2015eko *Baiñaren belaunaldia* liburuan, eta bidea egiten dio, baita ere, 80ko hamarkadan «l'art pour l'art»aren izenean jasandako despolitizazioa ulertzeari.

urterik urte eta ahoz aho. Marmar horietariko batek ETAREN indarkeria izan du hizpide.

Eztabaida literarioa 1980ko hamarkadaren hasieran hauspotu zen, hain zuzen ere, ETA politiko-militarrak jardun armatua eten zuen denbora berean. Garai hartan borroka armatuaren inguruko auzia pil-pilean zegoen. Literaturaren autonomiaren aldeko idazle batzuek ahotsa hartu eta indarkeria politiko horren aurka agertu ziren. Idazle on artean bazegoen bere burua Euskadiko Ezkerra alderdian edo pentsamendu-ildoan kokatu zuenik. Ramon Saizarbitoria idazle kanonikoa da horren adibide. 1980ko garai nahasi haietan etsaitasuna bizkortu egin zen Euskadiko Ezkerraren ildoko kide batzuen eta Ezker Abertzalearen ildoko batzuen artean. Hain justu Txillardegia, literatura engaiatuaren aldeko ordezkari nagusietakoa Ezker Abertzaleko kidea zen garai hartan. Giro nahasi hartako etsaitasun politikoei etsaitasun literarioen eremura egin zuten jauzi, eta harrezkero gorputzuz joan zen marmarra. Literatura engaiatuaren aldekoek Ezker Abertzaleko kide behar zuten izan, eta, ondorioz, ETAREN indarkeriaren aldeko.

Marmarrek orokortzetik dute beti, zauritik askotan ere bai, eta garai hartan baita oihartzunetik ere. Marmarraren errepika horrek bat egin zuen 1990eko hamarkadan gogortu ziren lege antiterroristekin eta Baltasar Garzón Audientzia Nazionaleko epailearen «Dena da ETA» dotrinarekin. Ondorioz, eskubide zibil eta politikoak izugarri murritzatu ziren. Adibidez, 1992. urtean Corcuera legea izenez ezaguturikoak susmagarri ziren herritarren etxeetan sartzea erraztu zion polizia. Garai berean, kale-borrokako ekintzak terrorismotzat hartu zituen Espainiako legeak, eta, ondorioz, ehundaka gazte lege antiterroristaren atarkepean atxilotu eta epaitu zituzten. Inkomunikazio-aldiak ekarri zituen horrek, torturak, kartzelaratzeko luzeak eta kartzela-erregimen gogorrak. Horiez gain, 2002. urtean Espainiako Alderdien Legea jarri zen indarrean, alderdi politikoak eta mugimendu politikoak ilegalizatzea ahalbidetu zuena. Esanguratsuki, diskurtso eta praktika politiko-errepresiboak hauspotu egin zituen Juan Maria Atutxa jeltzaleak (EAEko Barne Saileko burua, 1991tik 1998ra). Araban, Bizkaian, Gipuzkoan, eta Nafarroa Garaian, Unión del Pueblo Navarrok bezala Eusko Alderdi Jeltzaleak ere bat egin zuen diskurtso eta praktika antiterrorista horiekin. Lege antiterrorista horien bitartez eraikitako mundu-ikuskerara hedatzen joan zen pixkanaka hamarkada hartako euskal gizartean, eta marmarra hegemonia gisa egituratu zen, hau da, zentzu komun gisa.

Antonio Gramsci pentsalari marxistak kartzelako koaderno ezagunetan «hegemonia burgesa» deitu zion marmarren gisan hedatutako errepresentazioen monopolizazio horri (2007: 108). Hau da, estatuko eragileek bezainbeste, elizak, eskolak, korporazioek edota literaturak ikuspegi bakarra unibertsal gisa determinatzen zuten gaitasuna zen Gramscirentzat hegemonia burgesa. Hala, bada, gurean ere, hainbat eragilek hartu zuten parte marmarra diskurtso hegemoniko egiteko orduan. «Dena da ETA» diskurtso hegemonikoak zentzu komun gisa funtzionatzen zuen eta aurretiaz baldintzatzen zuen gatazkez esan zitekeena eta ez. Aurretiaz baldintzatzen zuen gatazkez ezer esan zitekeen ala ez.

Literaturaren eta haren kritikaren eremuak ez zuen ihes egin euskal gizartean joera nagusi gisa ezarritako «Dena da ETA» horretatik eta adierazpen-askatasunaren murrizketetatik. Joseba Gabilondok 2020ko *Babel aurretik* liburuan argudiatzen duenez, 1990eko hamarkadako idazleek «onarpen politiko instituzionala lortzeko, beharrezkoa zen indarkeria politikoaren gaia jorratzea» (310). Esan gabe doa, onarpen politiko instituzional hori izateko indarkeria politikoaren inguruko diskurtso jakin bat jorratzea ere premiazkoa zutela; hain zuzen ere, Eusko Alderdi Jeltzaleak onargarritzat hartuko zuen ikuspegi bat. Horrenbestez, Literatur Kritikaren jardun batzuetan diskurtso eta imajinario antiterrorista horien zantzuak hedatzen hasi ziren.

Irakurketa alegorikoak

Euskal literaturan irakurketa alegorikoen aldeko joerak izan du eraginik. Besteak beste, gatazka armatua mintzagai duten testu ugari nazio-alegoria gisa irakurri izan dira. Ezaguna da Fredric Jamesonek (1986) Hegoalde Globalaz³ ari zela argudiatu zuena: Hegoaldeko testu literarioek nazio-alegoriaren eitea duen dimentsio politikoa proiektatzen dute. Kanpo-begirada batetik eginiko irakurketa da, baina eragina izan zuen komunitate subalternoen edo ez-hegemonikoen testuen irakurketa-joeretan ere. Hala nola eragina izan zuen euskarazkoa bezalako literatura gutxituetan.

Irakurketa alegoriko horietariko batzuek testuaren geruza askotan barna arakatzen dute. Beste batzuek, aldiz, azaleko irakurketa alegorikoa eta sinbolikoa taxutzen dute. Zoritxarrez, hedatuenak, bai behintzat gurean, azaleko irakurketa horiek izan dira. Horrek higatu egin du bestelako irakurketa alegoriko konplexuagoak egiteko potentzialitatea. Bi adibide aipatuko ditugu jarraian.

1960ko eta 1970eko hamarkadetako hainbat obra literariotan izan zen mintzagai gatazka armatua. Biolentzia politikoaren inguruko auzia, modu batera edo bestera, jorratu egin zen. XXI. mendeko talaiatik begiratuta, garai hartako bi literatur lan izan dira irakurrienak, berrirakurrienak eta aipatuenak azken mende-erdian: Gabriel Aresti-*ren* «Nire aitaren etxea» (1964) poema eta Ramon Saizarbitoriaren *Ehun metro* (1976).

«Nire aitaren etxea» poemari askotan egin zaio keinu, askotan berridatzi eta berrizendatu da, askotariko testu motatan berridatzi ere (adibidez, kantu, telesail, lelo politiko eta eztabaida politikoetan). Gehienetan gatazka armatuaren inguruko ikuspegi bat edo kokapen bat irudikatu nahi izan da. Beste batzuetan arrakala bat sortu nahi izan dute berrinterpretazioek. Zapalkuntzaren aurreko erresistentzia edo agentzia sinbolizatu izan du sarri. Batzuek modu esplizituan ETArekin jardunarekin lotu dute. Beste batzuek ez dute indarkeriaren erabilerarekin lotu, zapalduaren agentziari eginiko keinutzat hartu baizik. Azkenik, egon da poema berridaztean gatazkaren kokapena desplazatu duenik ere.

3. *Third-World Literature* termino erabiltzen du Fredric Jamesonek 1986an, baina Joseba Gabilondok (2019: 68-69) adierazi bezala, gaur egungo testuinguruan irakurketa-joera hori da nagusi kultura globalean posizio subalternoa duen literatur esparru bateko literatur testuak posizio hegemonikotik irakurtzen direnean.

Poemaren esanahiaren desplazamenduaren adibidea da Iruñeko San Ferminetako talde-bortxaketaren ondoko ekimen feministetan jazotakoa. Ahizpa babestearen eta defendatzearen ideia behin eta berriro errepikatu zen, eta olatu horrekin bat egin zuen *Argia* astekariak diseinatutako kamisetaren leloak: «Nire ahizpa defendituko dut otsoen kontra, erasoen kontra, indarkeriaren kontra, justiziaren kontra defendituko dut nire ahizpa».

Berridazketa eta berrizendatze horiek guztiek argi uzten dute Arestiren poema nazio-gatazkaz edo gatazka armatuaz aritzeko lur sinboliko emankorra bihurtu dela. Poema sinbolo bihurturik transmititu da. Gogoeta-leku maiztu bihurturik, *Harri eta herri* bildumatik at irakurri da, Gabriel Arestiren ibilbide poetikotik at. Sinbolizatze orohartzaileok poema-bildumak sorturiko mundu-ikuskeraren beste ertz, ñabardura edo gatazka zenbait ikusezin bilakatu dituzte (besteren artean, klase-gatazka, genero-gatazka, senidetasun-harremanak, lurralde-ikuspegia eta jabetza-ikuspegia).

Azaleko irakurketa alegoriko orohartzaileak ere hedatu dira nobelagintzan. *Ehun metro* nobela hizpide zuela, haxe adierazi zuen Ramon Saizarbitoriak *Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan* elkarrizketa-liburuan⁴: «Niretzat argi baitzegoen borroka armatuaren kontrako nobela zela, eszeptikoa zen neurrian [...]. Baina ez zen horrela ulertu nahi izan». Ramon Saizarbitoria ez zen kexu *Ehun metro* tesi-nobelatzat interpretatu zelako, baizik eta tesia bera zuen kritikatzin: ETaren aldeko nobela izatea. Azken urteotako diskurtso, iritzi-truke, solasaldi ugaritan *Ehun metro* nobelaren eztabaidan hedaturiko parametro bertsuak errepikatu dira: alde ala kontra.

Ez dugu ahaztu behar Ramon Saizarbitoriaren *Ehun metro* (1976) nobela kanonikoak gatazka armatuaren gaia jorratu zuen arren, tematika horrek ez zuela erdietsi halako oihartzun kanonikorik 1990eko hamarkadaren amaierara arte. Hamarkada osoan zehar idazle kanoniko nagusiek nobeletan gatazka armatua izan zuten mintzagai⁵ eta, ondorioz, literatur produkzio horrek bat egin zuen kanonizatze-prozesuekin. *Ehun metro*ren irakurketa kanonikoa, beraz, atzera begira egindako irakurketa da.

Kanonizazio-prozesu hori indar ezberdinek egikaritu zuten. Besteak beste, Euskadiko Autonomia Erkidegoko instituzio politikoek hartu zuten indarrak izan zuen eragina (Euskadi Literatura Sariarekin, hezkuntza-sistemaren egituratzearekin eta dirulaguntzen sistemarekin, adibidez). Bestalde, Espainiako instituzio politikoek ere parte hartu zuten prozesuan (esaterako, Espainiako Literatura Sari Nazionalarekin, Espainiako Kritika Sariarekin, eta unibertsitate- eta ikerketa-egiturak Espainiako unibertsitate-sistemaren meneko izatearekin). Horrenbestez, gatazka armatua

4. Iratxe Retolazak jada 2013an identifikatu zuen *Ehun metro* eleberriaz egindako berrirakurketa da eta ETaren alde ala kontrako tesi-nobelatzat sailkatzeko tendentzia.

5. 90eko hamarkadan zehar gatazka armatua mintzagai izan zuten nobela kanonikoak izan dira, besteak beste, Bernardo Atxagaren *Gizona bere bakardadean* (1993) eta *Zeru horiek* (1995); eta Ramon Saizarbitoriaren *Hamaika pauso* (1995).

tematika alegoriko kanoniko bihurtu zuten indar-eragile horiek: idazle kanonikoen sorkuntzak eta espainiar legitimitateak⁶.

Kanonizazio-prozesu horretan, begirada alegorikoa hedatzearekin batera, irakurketa posibleak ere mugatu egin ziren. Hau da, testu literario batean ETak agerraldia egiten duenean, badirudi halabeharrez testu literarioa ETaren aldeko ala kontrako literaturaren ikur bilakatu behar dela. Zokoratu egiten dira testu literarioaren gainerako dimentsio guztiak.

Ordezkaritza maskulinoak

Egia da, irakurketa alegorikoak askotan zorrotz argudiatuta daude. Hala eta guztiz ere, modernitatean zehar kokagune unibertsala egokitu zaion subjektu-posizioaren arabera sorturiko irakurketa alegorikoak izan ohi dira: adin ertaineko eta klase ertain-altuko gizon zuri heterosexualari bakarrik aitortu zaio nazioa edo komunitatea ordezkatzeko ahalmena.

Muga horiek aipatu ditu Joseba Gabilondok ere *Babel aurretiken*: «Bestalde, 1980ko eta 1990eko hamarkadetako literatura berriari erreparatuta garbi ikusten denez, alegoria nazional esentzialistaren proiektuak bazeuzkan muga gaindiezin batzuk: EAEn ardazturiko proiektu maskulinista bat zen, emakumeak eta beste euskal eskualde batzuk bazterrean uzten dituen» (2020: 322). Ohartzekoa da Gabilondok ikuspegi baztertzailer eta maskulinista hori agerian utzi eta literaturaren historia bat proposatzean emakumeen ekarpen literarioak aipatzen baditu ere, ez dituela auzitan jartzen kanonizazio-prozesuetan garaturiko logika maskulinoak: norgehiagokaren logika, anaitasunaren logika, ordezkaritza bakar eta bertikalaren logika, adibidez.

Are gehiago, *New York-Martutene* liburuan, kanon «kontrahegemoniko» bat proposatzean, eta Ramon Saizarbitoriaren *Martutene* (2012) nobelaren irakurketa egitean, logika maskulino horiek erabiltzen ditu Gabilondok ondorio hauetara heltzeko: «Saizarbitoria aitortu behar dugu euskal kanon narratiboaren ardatz eta idazle nagusi gisa» (2013: 26). *Babel aurretiken* antzeko ideia mahaigaineratzen du autoreak «Saizarbitoria da Euskal Herriko eguneroko bizitzaren kronikari errealista goren» (2020: 310). Ordezkaritza-funtzio hori aitortzen zaio idazle bati, kontuan hartu gabe ahots narratibo gehienak klase-posizio batetik, hiri-posizio batetik, gizon-posizio batetik, belaunaldi-posizio batetik eta ideologia-posizio batetik sortu direla, eta, hortaz, ordezkatzekotan, komunitate jakin horren kronika edo mundu-ikusker

6. Literatur esparruen arteko itzulpen-zubiez jardutean Antón Figuroak (2004) joera hau sumatzen du kultura gutxituetan (edota gutxi ezagututako kulturetan): literatur lanak produktu exotikotzat hartzen dira espektakularizazio-prozesu baten bitartez, eta ez dira dinamika historiko batean kokaturiko testu modura irakurri ohi. Exotikotasun-kutsu hori kanpoko kultur esparruek garaturiko begiradaren arabera da, eta literatur esparruek mendekotasun-harremana dutenean, kanpoko begirada horrek eragina du barne-logiketan. Ibai Atutxak (2012) ohartarazi bezala, irakurketa exotiko horrek ikuspegi otzandu eta onbera hauspotu zuen. Bestalde, berriki Joseba Gabilondok (2019: 68) argudiatu bezala, ETak armak utzi ondoren eta globalizazioaren testuinguruan, Espainiako botereguneek honako hauek dituzte euskal literaturarekiko interesgune nagusi: ETaren indarkeria eta turismoa.

ordezkutzen dutela. Komunitatearen ordezkaritza-funtzio hori nekez aitortuko zaie beste ahots narratibo batzuei, beste idazle-posizio batzuei. Beharrik ere ez.

Kontua da halako ordezkaritza-diskurtso maskulinoek bat egin dutela egungo elkarbizitzaren eta normaltasunaren aldeko mezu politikoekin. Arazoa da gatazka armatua hizpide duten obra literarioei funtzio hau esleitu nahi izan zaiela kritikatik: elkarbizitza-gune bilakatzea, normaltasuna bilatzea, gatazka bera kritikoki galdekatu gabe. Esan dugu gorago ere, beste bide bat urratu nahi du liburu honek, literaturari eta gatazkei buruzko beste ikuspegi bat hartu, beste tradizio batetik eragin.

EDUKIEZ, ATALETZ ETA KAPITULUEZ

Liburua gurutzatzen duen hari gidarietako batek gatazka armatuaren erdigunea eta bazterrak galdekatzen ditu. Gatazkaren erdigunea egituratu zuen maskulinitateaz dihardu. Erdigune hori desplazatu eta zentroan ETako emakumezko militantea kokatzen du. Erdigunetik urrundu eta gatazkaren bazterretara begiratzen du. Erdigune eta bazterren artean gatazkek biderkatu egiten dira. Isildutakoari ahotsa ematen diote kapituluek eta gatazkaren adiera zabaltzen dute.

Hari gidari horrez gain, beste askok gurutzatzen dute liburua. Edizio-lanetan aritu garenok ez ditugu irakurketa posibleak mugatu nahi. Aitzitik, interpretazioak areagotu nahi ditugu, eztabaidak sustatu. Horregatik eman diegu kapituluei honako antolaketa hau.

Liburuaren lehenengo ataleko kapituluek ulertzeko marko eraberritu bat proposatzen dute gatazka armatua soziologiatik ulertzeko. Izan ere, 1980ko hamarkadan ezarritako diskurtsoak gainditzeko bildu ditugu 1960ko hamarkadaren eta 1990eko hamarkadaren irakurketa soziologikoak. Horrek genero-gatazkaren ardatza ikusgai egitea ekarri du ezinbestean. Horregatik izendatu dugu atala «Indarkerien dantzaleku feminista baten bila». Dantzazera behartutako indarkeriak baino gehiago, dantzalekua bera galdekatzen du atal honek.

ETako emakumezko militantea jarri dute erdigunean lehenengo ataleko bi kapituluek. Onintza Odriozolaren «60ko hamarkadako ETako eta haren inguruko emakumeen testigantzak: erresistentziaren barruko erresistentzia» kapituluak gatazkaren hastapeneko hamarkadak ikertu ditu. Olatz Dañobeitiaren «90eko hamarkadako Ezker Abertzaleko emakumeen bizipenak: genero-erregimen ezberdinen arteko dantza(n)» kapituluak, berriz, azken hamarkadetako tartean jarri du arreta. Bietan, emakumezko militantea erdigunean jartzeak ezinbestean dakar marko kritikoa ere aldatzea. Erakunde horren barneko botere-harremanek eta inguruko estatu-indarkeriek ETA menderakuntza eta askatasunerako eremu kontraesankorra izatea ekarri zuten.

Bigarren ataletik aurrera literatur sorkuntzari begiratzen dio liburuak. Hau da, lehenengo atalak soziologiatik jarduten badu gatazka armatua ulertzeko, bigarren eta hirugarren atalek euskarazko sorkuntza literarioa ikertu dute. Estetikoa, diskurtsiboa eta afektiboa denaren uztarketa gisa, fikzio literarioa da ezarritako diskursoak betikotu edo zalantzan jartzeko esperimentazio-gune behinenetako bat. Atal bakoitzak alderdi ezberdinetik begiratu dio literaturari.

«Erdigunean indarkeriek dantzatzen gaituzte» izenekoa da bigarren atala. Bertan, maskulinitatetik eraikitako gatazka armatuaren ikuspegia aztertu dute autoreek kapituluetan. Zehazkiago, maskulinitatetik transmitituriko eta erroturiko gatazkaren desirak eta genero-desplazamenduak azaleratu dituzte. Ibai Atutxak «Gizon terribleak. Genero-fikzioak eta desira-lurraldeak 78ko erregimenaren atarian» izeneko kapituluak, *Elsa Scheleen* eta *Egunero hasten delako* aztertu ditu garaiko ETaren dokumentuekin eta zinema popularrarekin batera. Ataleko lehenengo kapituluak 60ko eta 70eko hamarkadetan jartzen badu arreta, bigarrenak 90eko hamarkadaz geroztiko denbora-tarteari begiratu dio. Horrenbestez, Iratxe Retolazaren «Genero-desplazamenduak euskal nobelagintzan: espetxeari saiheska begiratzeko kokapen literarioak» kapituluak Bernardo Atxagaren *Zeru horiek*, Carmen Gisasolaren *Gaur zortzi* eta Pako Aristiren *Rosa itzuli da* eleberriak aztertu ditu horretarako. Biek ala biek agerian uzten dituzte maskulinitate berrien betiko zapalkuntza-mekanismo zaharrak, baita maskulinitate iraultzaileenek ere errepikatzen dituztenak.

«Indarkeriazko dantzen bazterreko ibilbideak» atalean *gatazka* kontzeptua zabaltzeko proposaturiko irakurketa kritikoekin itxi dugu liburua. Eider Rodriguezen «Bazterretik kontatu: generoa, identitate sexuala eta haurtzaroa euskal gatazkari buruzko literaturan» kapituluak Joseba Sarrionandia, Juanjo Olasagarre eta Lander Garroren lanak jarri ditu elkarri begira. Lorea Azpeitiak, berriz, «Jenisjoplin: gatazka politikoez zeharkatutako nortasun-eraldaketa bat» kapituluak, eleberriko protagonistaren bizipenetatik abiatu eta askotariko euskal gatazkek ekarri ditu azalera. Bukatzeko, Ane Villagranen «No woman's land. Gatazkaren (h)egietan barna: euskal emakume olerkarien gatazka-guneen irakurketa» kapituluak, Leire Bilbao, Itxaro Borda, Jule Goikoetxea eta Castillo Suarezren lanak jarri ditu elkarizketan.

Kapituluotan, kritika feministak gatazka armatuaren itzalean gelditu diren beste gatazkek mahai gainean jartzeko bidea eman du. Ondorioz, *gatazka* kontzeptua bera zabaltzea ezinbestekoa den eginbeharra bilakatzen dute ekarpen ezberdinek. Izan dadila gatazken galdekatze hau hemendik aurrerako literatur kritika berriaren pizgarria.

BIBLIOGRAFIA

- Aresti, Gabriel (1964): *Harri eta herri: Kopla, bertso, ditxo eta poemak*, Itxaropena, Zarautz.
- Arraiz, Hasier (2019): *Maitasun keinu bat besterik ez*, Erein, Donostia.
- Atutxa, Ibai (2012): *Kanonaren gaineko nazioaz. Euskal nortasunaren erreprezentazioen inguruko azterketa Ziutateaz eta Bilbao-New York-Bilbaon*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- Atxaga, Bernardo (1993): *Gizona bere bakardadean*, Pamiela, Iruñea.
- , (1995): *Zeru horiek*, Erein, Donostia.
- Azurmendi, Joxe (2018): *Beltzak, juduak eta beste euskaldun batzuk*, Elkar, Donostia.
- Butler, Judith (1999): *Gender trouble: Feminism and the subversion of identity*, Routledge, New York.
- , (2018): *Genero nahasmendua: Feminismoa eta identitatearen subertsioa*, Elkar, Donostia.
- Davis, Angela (2016a): *Askatasuna, etengabeko borroka bat Ferguson, Palestina eta mugimendu baterako oinarriak*, Katakarak, Iruñea.
- , (2016b): *Freedom is a constant struggle: Ferguson, Palestine and the foundations of a movement*, Haymarkets Books, Chicago.
- Fanon, Franz (2002): *Les damnés de la terre*, La Découverte & Syros, Paris.
- Figuerola, Antón (2004): «La noción de campo literario y las relaciones literarias internacionales», in María Jesús Salinero Cascante (koor.) eta Ignacio Iñarrea Las Heras (koor.), *El texto como encrucijada: estudios franceses y francófonos*, Bol. 1, 2004, 521-534.
- Gabilondo, Joseba (2013): *New York-Martutene. Euskal postnazionalismoaren utopiaz eta globalizazio neoliberalaren krisiaz*, UPV/EHU, Bilbo.
- , (2019): *Introduction to a Postnational History of Contemporary Basque Literature (1978-2000). Remnants of the Nation*, Tamesis, Woodbridge.
- , (2020): *Babel aurretik. Euskal literaturaren historia bat*, Txalaparta, Tafalla.
- Gramsci, Antonio (2007): *Prison Notebooks*, Columbia University Press, New York.
- Jameson, Fredric (1986): *The political unconscious: Narrative as a socially symbolic act*, Cornell University Press, Ithaca.
- Lasa Alegria, Amaia (1977): *Hitz nahastuak*, Leopoldo Zugaza, Durango; Armiarma [online: <<https://www.armiarma.eus/emailuak/irrisiko/lasa.htm>>].
- Marx, Karl eta Engels, Friedrich (1998): *Alderdi Komunistaren Manifestua*, Jakin, Donostia.
- , (2002): *The communist manifesto*, Penguin, Londres.
- Olaziregi Alustiza, Mari Jose (2017): «Literatura vasca y conflicto político», *Diablotexto Digital*, 2, 6-29.
- , (2019): «Narrativa Vasca y memoria histórica: Rememorar para convivir», *EHumanista/IVITRA*, 15, 342-361.

- Puar, Jasbir (2007): *Terrorist assemblages: Homonationalism in queer times*, Duke University Press, Durham.
- Retolaza, Iratxe (2013): «Lubakiak eta bandak», *Euskal Kulturaren Urtekaria*. Argia, Argia, Andoain.
- Saizarbitoria, Ramon (1976): *100 metro*, Kriselu, Donostia.
- , (1995): *Hamaika pauso*, Erein, Donostia.
- , (2012): *Martutene*, Erein, Donostia.
- Sarasola, Beñat (2015): *Bainaren belaunaldia: «Ustela», «Pott» eta «Oh! Euzkadi»*, Labayru, Bilbao.